

ERRIGORAK 55 URTE

2018-2019 IKASTURTEA



2013-2018

ZUBIGINTZA

«Zubiek amildegian bidea egiten dute. Aparteko munduak lotzen dituzte. Bazterrak erdigune bihurtu. Ametsak errealitate». Hitz horiek eman zioten hasiera orain urtebete sarera jaurti genuen bideoari.

2016-17 ikasturtean [ERRIGORago](#) joateko eta izateko nahia plazaratzetik gentozen: euskararen zein ekoizpenaren eremuan ekimena harago eramateko amets berriez aritu ginen, bestelako merkaturatze-ereduei bide egiteaz eta auzolanari zein elkarlanari forma berriak emateaz.

Bagenekien, ordea, **ametsok errealitate bihurtzeko pazientzia eta denbora** beharko genituela; beharrezkoa zela eremuz eremu pausuak ematea ahalbidetuko diguten zubi berriak eraikitzea eta, era berean, Errigora, tresna gisa, asmo handi horien neurrira taxutzen hastea.

ZUBIAK

Horrenbestez, [zubigintzaz](#) aritu ginen iazkoan. Egunen batean Nafarroa hegoaldean euskaraz bizitzeko egitasmoak martxan jartzeko euskaltzaleen artean **eraiki beharreko zubi berriez**. Edo ekoizle, kontsumitzaile, kontsumo-talde, dendari, jantoki eta abarren artean eraiki beharrekoek, kanpainetatik harago merkaturatze-bide berriak zabaltzeko ametsa egia bihur dadin. Baita ekoizpen-eremu eta ekoizpen-eredu berriak sustatzeko dagoeneko [nekezari eta elaboratzaileen artean eraikitzen ari garen zubiez](#) ere.

Era berean, Errigora osatzen duen **komunitateak orain arte eraikitako zubiez** ere aritu ginen: Euskal herrien eta herritarren artean eraikitako zubiez,

kontzeptu ustez apartekoen artean (euskara eta elikadura-burujabetza) eta bereizitako eremuetako ekintzaileen artean eraikitakoez. Ekintza isolatuak eta grina desberdinak lotzen dituzten zubiez.

ANTOLAKETA

Kanpora begira zubigintzaz ari ginen bitartean, **etxe barruan antolaketa-lan handia** eskatu zigun iazko ikasturteak. Batetik, bi kanpainak —[#EUSKARARI](#)-puzka eta [#ESKUTIKeskura](#)— egonkortu eta **kanpainetako sorkuntza eta kudeaketa-lanak eragin-kortzeko** ahaleginean aritu ginen, erronka berriei heltzeko denbora eta indarra irabazte aldera. Kanpainen emaitzak, orain arte ohikoa izan den bezala, izugarriak izan ziren. Herriz herri Errigora gorpuzten dugun sarekide nekaezinen ahalari esker, lanak automatizatu arren ez genuen freskotasunik galdu.

Bigarrenik, erabakietan arintasuna irabazteko, **Errigoraren eztabaida- eta erabaki-guneak berantolatzeko lana** hartu genuen: guztiok guztiari buruz aritzeko lan-talde bakarretik, erronka konkretuei lan-talde konkretuak esleitzeko eskemara pasa gara, eztabaidak eta erabakiak korapilatzea eta gehiegi luzatzea ekidin asmoz.

Hirugarrenik, Errigora mugitzea posible egiten duena sare delako jakinik, saltsa berrietan sartzeko berau zaindu eta biziberritzeko ahalegina egin beharra ikusi genuen eta, konkretuki, beste ezeren aurretik **sareari ahalik eta argazki zehatzena** ateratzen saiatu ginen. Zenbat gara? Nortzuk gara? Nola aritzen gara? Zer konpromiso-maila dugu? Zer falta dugu errazago aritzeko? Galdera guzti hauei erantzuteko diagnostikoa osatzeari ekin genion, ondoren hartu beharreko neurriak argi izateko.

#EUSKARARIpuzka 2017

#ESKUTIKeskura 2018

14.000 SASKI
175.000€ EUSKALGINTZARA

93.000 LITRO OLIO
207.000 ONTZI KONTSERBA

2013-2018

5 URTE

Errigoraren sorreratik bost urte beteko dira honetzeko. 2012ko udazkenean Zazpiak Bat Harreman Sarearen eskutik eta Nafarroa hegoaldeko bi ekoizleren produktuekin Argia Ikastolarentzat 34.000€ lortu ostean, **2013ko urrian Errigora ekimena aurkeztu eta bere lehenengo kanpaina abiatu genuen** AEK, Ikastolen Elkartea eta Sortzenekin batera, *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* lelopean. Herritarren erantzunak ia ustekabean harrapatu gintuen: 8.000 saski baino gehiago banatu eta 112.000€ bideratu genituen Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara.

Urte berriarekin, kontsumo-ohituretan eragiteko planteamendua egin genuen, udazkeneko kanpainaren emaitzak lagun. Urruneko ordez, eguneroan bertako produktuei tokia egiteko bide bat eskaintzeko asmoarekin, *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpaina proposatu genuen. Ideiaren zalantza guztiak uxatu zituen beste behin ere jasotako oliba-olio birjina estra eta kontserba-sorten eskaera kopuruak: 30.000 litro olio eta 50.000 ontzi kontserba.

Ordutik igaro diren 4 ikasturteetan zenbakiek gora eta gora egin dute eta, era berean, **egitasmoaren inguruan osatu den komunitatea hazi eta hazi** ibili da: gero eta kontsumitzaile arduratsu gehiago gara, bai, baina baita gero eta ekoizle gehiago ere, eta boluntario gehiago ere bai, gero eta herri gehiagotan. Eta gero eta sakonagoak dira batzuek besteekiko ditugun loturak.

5 urte daramagu #EUSKARARIpuzka. Urteotan, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari 800.000€ko ekarpena egin diogu herritarrek euskalduntzen jarraitu ahal izateko. Baina, diruaz gain, urtez urte bertako euskalgintzako lagunak jasotako babes eta animoa euroak bezain ezinbesteko zaizkigu aurrera jarraitzeko. Era berean, zonaldean euskarak espazio berriak irabazteko eta gure hizkuntzarekiko jarrean eragiteko pausuak eman ditugu, oraindik dena egiteko asko dugun arren.

5 urte daramagu #ESKUTIKeskura gure ekoizpen, merkaturatze eta kontsumo ohituretan eragiten. Gero eta ekoizle gehiago iparraldera begira jarritz; gero eta kontsumitzaile gehiago hegoaldera begira.



HERNANIN, OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA BANATZEN (2016KO APIRILA)

LERINEN, ERRIGORAKO ZENBAIT EKOIZLE KORRIKARI ITXAROTEN (2017KO APIRILA)



Eta, gure txikitasunean, Nafarroa hegoaldeko ekoizpenean eragiteko ahaleaginean aritu gara, zenbait ekoizle produkzio ekologikora hurbilduz edo eremu berriak lantzeko nekazariak eta ekoizleak harremanetan jarritz.

Eta 5 urte daramagu **auzolanean, hau guztia beste modu batera egiten saiatzen**: elkarrekin eta bizi-pozez. Inoren zain egon gabe, herritarrok ahalduntzen. **Herrigintza biziberritzeko gure ekarpen xumea egiten**, zubigintza ardatz hartuta: bazterreko eta itxuraz loturarik gabeko eremuak (euskara eta elikadura-burujabetza) batu eta erdigunera ekarriz; itxuraz erabaki eta ekintza indibidual eta isolatuei marko kolektiboa eskainiz; Euskal herri eta herritarak lotuz, behetik gora eta goitik behera.

Labur esanda, 5. urteurrena ospatuko dugu aurtengo ikasturtean, urteotan egindakoa eta lortutakoa azpimarratzeko tarte hartuz. Alabaina, orain artekoa bide luze baten lehen pausua baino ez da izan. Oraindik urteurren asko ospatu nahi dugu, orain

arte egindakoa baino askoz gehiago baitugu egiteko eta lortu duguna baino askoz gehiago lortzeko. **5. Urteurrenaren ospakizuna, beraz, amaiera klabean baino, ziklo berri baten hasiera gisa ulertu behar dugu.**

Baina, konkretuki, zer egingo dugu 2018-2019 ikasturtean?

- **Kanpainak indartzen eta eraginkortzen jarraituko dugu:**
 - Udazkenean #EUSKARARIpuzka
 - Udaberri atarian #ESKUTIKeskura
- **Antolaketa-eredu berria martxan jarriko dugu:** lan-talde berriak osatu eta lanean hasiko dira apurka-apurka, eta sarea zaindu eta indartzeko planteamendu konkretuak egingo ditugu.
- **ErrigoraGO izan eta joateko ametsak definituko ditugu:** Nafarroa hegoaldean euskarak espazioak irabazteko ideari eta kanpainetatik harago merkaturatze eredu-berriak zabaltzeko asmoari forma konkretua ematen hasiko gara.

ERANSKINA

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

5 URTE
EUSKARARI
PUZKA
URRIAK 25 - AZAROAK 14

5 URTE EUSKARARI PUZKA

Ikasturteko ospakizunarekin bat eginez, joandako 5 urteek -5 kanpainek- emandakoaz arituko gara udazkeneko kanpainan. Izan ere, sarri aipatzen ditugu zifrak diru-ekarpenaz aritzean, baina, **zertarako balio izan dute urteotan Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara bideratu ditugun 800.000 euroek?**

Lehenik, kontuan izan behar dugu zonaldeko ikastolek, euskaltegiek eta, oro har, **euskalgintzaren dinamika bizirik mantendu izana** ez da gutxi, hizkuntza-eskubideei dagokienez hamarkadetan administrazioak Nafarroa hegoaldeari eskaini dion gutxiespen tratua kontuan izanik.

AEK

Edonola ere, biziraupenerako baino gehiagorako eman du orain arte metatutako ekarpenak. Horren erakusle da Erriberako AEKren bilakaera. Izan ere, urtez urte diru-ekarpenaren parte handi bat **ikasleei matrikula arintzeko beka-sistema** martxan jartzera bideratu da. Ikasturteko eskolen %75etik gora jaso duten ikasleei gutxienez matrikularen erdia (%50etik %65era, urtearen arabera) ordaindu zaie era honetan.

Beka-sistema honen fruituak ez ditugu ikasleen poltsikoetan soilik topatuko: 2013-14 ikasturtetik 16-17ra **%70 hazi da matrikulazioa Goi eta Behe**

Erriberan. Zehazki, 2013-14an ikasturtean 60 ikaslek eman zuten izena bi eskualdeotan; 2014-15ean 90ek; 2015-16an 95ek eta 2016-17an 102k.

IKASTOLAK

AEKren euskaltegiekin batera, ikastolak ezinbesteko tresna izan dira zonaldean herritarrek euskalduntzeko. Tamalez, oso zaila da behar luketen adina diru biltzea, baina Vianako Erentzun, Lodosako Ibaialde eta Tuterako Argia ikastolei ere ekarpen polita egin diegu guztion artean. Gutxienez, **arnasa lasaiago hartzeko eta balio izan du** orain arte bildutakoak. Beharrezko **konponketak egin eta azpiegiturak atundu zein ezinbesteko materiala eskuratzera** bideratu da diru gehiena.

Ibaialde ikastolan, batez ere itolarritik arintzeko erabili dute dirua. Baina eguneroko gastuei aurre egiteko baino gehiagorako eman du ekarpenak. Besteak beste:

- Garraio-gastuei aurre egiteko.
- Materiala eta mantenu lanak (iturrien konponketa, hidrantea berritu, hodiak, gortinak, margotze-lanak...) egiteko.
- Haur Hezkuntzako geletan lanak espazio irekiak sortzeko.
- Gimnasioa neguan erabilgarria izan dadin bero-



ARGIA IKASTOLAKO HAURRAK

TUTERAKO ARRIGARAI EUSKALTEGIKO IKASLE TALDE BAT



gailuak jartzeko.

- Aulki ergonomikoak.

Erentzun ikastolari dagokionez:

- Frontoian lanak egin dira ikasleek jolasleku bezala erabili eta heziketa fisikoko eskolak bertan eman ahal izateko.
- Errotulazioa eta kartelak ordaintzeko.
- Kalitate Egitasmo Integrala (KEI) lortzeko ikuskaritzari aurre egiteko.
- Routera eta wifi puntu berriak jartzeko.
- iPadak erosteko.
- Gelak pedagogia berrira egokitzeko lanak egiteko.
- Mailegua amortizatzen.

Eta Argia ikastolan ondorengo inbertsioei egin ahal izan diete aurre:

- Web gunea eta komunikazio proiektua.
- Igogailua (5 urtetan ordaintzeko).
- 10 gelarako ekipazio osoa (arbelak, proiektoreak, ordenagailuak, monitoreak, bozgorailuak...).
- Argazki makinak eta ordenagailu eramangarriak.
- Aretorako isolatzaile termikoa.
- Gortinak ikastolako gela guztietan.
- Mantenimendurako lanak.
- Wifi antenak eta zuntz optikoaren konexioak.

SORTZEN

Sortzenek **euskaraz bizi eta ikasteko eskubidearen aldeko dinamika hauspotzeko** erabili du urteotako diru-ekarpena. Bi fase bereizi behar dira eginakoa azaltzeko: 2015eko otsailera arte lehena eta data honen ostean bigarrena. Mugarria Nafarroako Parlamentuan Vascuencearen Legeari egindako aldaketak jarri zuen, ordutik aurrera posible baita haurren matrikula egitean Nafarroa osoan D ereduak aukeratzea (beste kontu bat da ondoren taldea osatzea).

Beraz, ordura arte Euskaraz Bizi eta Ikasi herri ekimena sortu eta eta hauspotzera bideratu zen dirua. 2015etik aurrera, ordea, **D ereduaren aldeko kanpaina zuzenak** egitera bideratu da. Nafarroa hegoaldeko milaka familiarengana heldu da mezua eta, neurri batean, saiakera honi esker sortu dira Tafallan (50 bat ikasle), Lodosan (17), Kaparroson (16), Allon (8), Antzinen (13) eta Erriberrin (14).

BABESA ETA INDARRA

Edozein kasutan, **dena ezin da eurotan neurtu**. Nafarroa hegoaldeko euskalgintzako proiektuek aurrera egiteko ezinbestekoak baitira bultzaka ariko diren pertsonak, diruaz gain. Eta urte guzti hauetan ikasle, irakasle, guraso eta euskaltzaleek gainontzeko euskal herritarrengandik jasotako **babesa eta indarra** ezinbesteko izan dira lehenengo gogoia eta adorea biziberritzeko.

EKOIZLEAK ETA ESKAINTZA

Aurten ere bi kutxa ixango dira aukeran: ZURIA eta BELTZA. Bakoitza 50€ren truke. Beltza Errigoraren hastapenetakoaren harira, Zuria berrikuntzak bil-tzen dituen.

23 etxek eskainiko dizkigute haien produktuak. Do-zenaka langile. Ehunka nekazari. Bada familia!

- Ablitasgo kooperatiba
- Biosasun (Discastillo)
- La casa del aceite (Cascante)
- Bardea (San Isidro del Pinar)
- Ekolo (Arroitz)
- Monasterio de Cascante
- El Molinero (Arroitz)
- Alcaravan (Arguedas)
- Urrutia (Uxue)
- Martinelli (Berriain)
- Azpea (Irunberri)
- Lezaun (Lakar)
- Mendiko (Oibar)
- Almanaque (Andosilla)
- El Agricultor (Lerin)
- La Churta (Allo)
- Ebron (San Adrian)
- El Escolar (San Adrian)
- Iturri (Arroitz)
- Maria Jesus (Ablitas)
- Pedro Luis (Lodosa)
- Larrinaga (Urantzia)
- Gobeiaberri (Lodosa)



**PIKILLO SALTSA
PASTA EKOLOGIKOA
PIKILLO PIPER OSOAK
ORBURUAK
ZAINZURI ZURIAK
ARDO BELTZ EKOLOGIKOA
ZAINZURI-KREMA
PIPERRADA
OZPIN EKOLOGIKOA
ARROZA
TEILAK
ARDO ETA KANELA PASTAK
TXOKOLATEZKO COOKIEAK**

ZURIA 50€



**OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA
OZPIN EKOLOGIKOA
MAHATS-ZUKU EKOLOGIKOA
ORBURU BIHOTZAK
PIPER TXORIZERO MAMIA
POTXAK
ARDO BELTZ EKOLOGIKOA
ZAINZURI ZURIAK
BORRAJA EKOLOGIKOA
PIKILLO PIPER OSOAK
ARBENDOLAK
MELOKOTOIA ALMIBARRETAN
TOMATE FRIJITUA**

BELTZA 50€

EUSKARALDIA

Aurtengo kanpainan ezin dugu ahaztu ate joka edukiko dugun [Euskaraldia](#). Azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo den ariketa erraldoiari **gure ekarpentxo**a egiteko **ahalegina** ere egingo dugu.

Izan ere, beste askorekin batera, Euskaraldiaren sustatzaile izango gara. Batetik, bistakoa denez, **euskararen erabilerari bultzada emateko ahaleginean** guztiz bat egiten dugulako. Eta, bigarrenik, euskara hauspotzeko aukeratu den **bidearekin ere erabat ados** gaudelako:

- Errigorarena bezalatsu, herritarrok ahalduntzeko planteamendua delako.

- Gure eguneroko ohituretan eragitea bilatzen duelako.
- Norbere erabaki eta ekintza indibidualei mar-ko kolektibo bat eskaintzen dielako, benetako eragina izan dezaten.

Konkretuki, gure **komunikazio-bitartekoak, tresnak eta kanalak erabiliko ditugu Euskaraldiari kobertura emateko**, baina, era berean, buruari eragin beharko diogu **herriz herri egin diezaiokegun ekarpena** aztertzeke. Herritarron esku dago egitasmoaren arrakasta eta, beraz, ezin dugu inoren zain egon.

EGUTEGIA

URRIAN
Prestaketa lanak
URRIAK 24
Kanpainaren aurkezpena Iruñean
AZAROAK 9 ETA 10
Ablitasgo auzolana
AZAROAK 14
Eskaerak jasotzeko azken eguna
AZAROAK 29 - ABENDUAK 4
Saskien banaketa
ABENDUAK 5-12
Ordainketak
KANPAINA
BANAKETA
ORDAINKETA

URRIA						
22	23	24	25	26	27	28
AZAROA						
29	30	31	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	1	2
ABENDUA						
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16